SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

# Soziolinguistika albistaria

121. zenbakia

2022ko apirilak 29 – maiatzak 12

## Soziolinguistika Klusterreko albisteak

### Enpresen Erantzukizun Linguistikoa lantzeko eredua sortu dute Soziolinguistika Klusterrak eta Euskal Herriko Unibertsitateak

Hizkuntzaren gaia kudeaketa-sistema orokorrean integratuta jorratzen du eredu honek eta enpresaren helburu estrategiko orokorrak aberastera datorren ekimen-multzoa da. Ereduak ibilbide bat proposatzen du enpresek dagoeneko martxan dituzten etengabeko hobekuntza prozesuetan eta gizarte-erantzukizuna lantzeko metodologietan txertatzeko erantzukizun linguistikoa.

### Pablo Suberbiolak hitzaldia emango du ostiralean #Udaltop14 topaketan

[Udaltop] "Eskolaz kanpo, zer eta nola egin behar dugu hobeto, hiztun hobeak sortzeko?" hitzaldia emango du Soziolinguistika Klusterreko kideak#Udaltop14 topaketan.

## Ikerketak

### Helduen euskalduntzearen alorreko metodologiagintzan ikertzaileak gaitzeko beka emateko deia

[HPS] Deialdiaren xedea da helduen euskalduntzearen didaktika aplikatuaren metodologiagintzaren alorrean ikertzaileak gaitzeko beka bat ematea, hain zuzen ere, HABEk eta UPV/EHUk adostutako lankidetza-hitzarmenaren baitan, deialdian zehazten den proiektu bateko zereginak burutzeko helburuarekin.

### Euskarari argazkia, objektiboz aldatuta

[BERRIA] Gaitasuna ala erabilera, euskarak zer dauka indartsuen? Azken urteotan ohiko joera izan da berrestea gaitasunean indartsu dagoela euskara, eta erabileran, ordea, ahul. Alta, guztiz bestelako ondoriora iritsi da Iñaki Iurrebaso, egiten ari den doktore tesian: dagoen euskararen ezagutza mailarako, handia da erabilera.

### '.eus' domeinuko webguneen %80k euskarazko edukia eskaintzen dute

[BERRIA] Puntueus behatokiak azterlan bat egin du domeinuaren erabileraren gaineko datuak xehatzeko. Webgune horien %36,7k euskaraz ematen dute lehenbiziko hitza.

—

## Jardunaldi, hitzaldi eta ikastaroak

### Euskararen aldeko aktibazio soziala: aukerak eta proposamenak

[UIK] Aurtengo ikastaroa, iaz antolatu genuen "Hizkuntza gutxituen aldeko aktibazio soziala" ikastaroaren jarraipena da. Iaz marko teorikoa eta ikuspegi praktikoak landu genituen, eta aurten praktika zehatzetan jarriko dugu fokua.

### Gazteen ahotsak: Hizkuntza-ideologiak eta kultur aniztasuna

[UIK] Gazteen hizkuntza-ideologiez jardungo dugu mintegi honetan, hizkuntza gutxituen hiztun gazteengan arreta jarrita. Eguneroan testuinguru kulturaniztunetan bizi diren gazte horientzat, zer-nolako esanahi eta funtzio soziala dute euskara, katalana edo galegoa bezalako hizkuntza txikiek?

### Round table: European language models in education

[NPLD] A comparative research study showcasing the cases of Brittany, Catalonia, Basque Country, Ireland and Wales will be presented during the Round Table "European Language Models in Education", to be held in Brussels (Wales House) on 19 May.

### Towards Digital Language Equality (20 June, Marseille)

[European Language Equality] In this workshop, we would like to address the international, national, regional and local policies, initiatives, projects, studies and research that target DLE and situational context factors that may affect DLE.

### [BIDEOA] Elebitasuna eta bizikidetza. Leizaola Fundazioaren jardunaldia

[Leizaola Fundazioa] Maiatzaren 5ean bizi ditugun garai berri hauetan euskararen sustapenerako estrategia egokia zein izan daitekeen hausnartzen saiatu ginen eta bideo honetan jasota dago jardunaldia.

## Liburuak eta artikulu zientifikoak

### The World's Languages in Crisis (Redux): Toward a Radical Reimagining for Global Linguistic Justice

[Emancipations] The world's languages are in crisis: intergenerational transmission of around half the world's languages is collapsing. I argue that to understand and intervene in this situation, we need to radically reimagine what it means to call it a crisis.

### The risk of 'taking urgent steps': linguistic diversity and the International Decade of Indigenous Languages

[Journal of Multilingual and Multicultural Development] Aldizkariak 43(3) zenbakia argitaratu berri du eta, bertan, munduko eremu ezberdinetako hizkuntza gutxitu batzuen egoera kritikoan ideologiek eta politikek duten eragina aztertzen da hainbat artikulutan.

### El model lingüisticoeducatiu de les Illes Balears a la cruïlla – Antoni Llabrés Fuster

[RLD Blog] El passat dia 22 de febrer el Parlament de les Illes Balears aprovava la Llei 1/2022, de 8 de març, d'educació, que dedica el títol VI (art. 135-138) a regular el model lingüístic escolar que ha de regir en el sistema educatiu balear.

### Publication of "Language Communities in Japan"

[Linguapax] Several members of Linguapax Asia have contributed articles to the recent publication "Language Communities in Japan", by Oxford University Press. The book offers a comprehensive sociolinguistic overview of the linguistic situation in Japan.

### Family language policy and school language policy: can the twain meet?

[International Journal of Multilingualism] This commentary outlines the key conceptualisations and core questions related to multilingual children's language and literacy development across different migration contexts.

*Dokumenturen bat edo informazio bibliografiko gehiago nahi izanez gero, jo zuzenean HABE Liburutegira (liburutegi@habe.eus), beraiek arduratuko baitira zure eskaria bideratzen.*

## Bestelako albisteak

### "Herri gogoa" Korrikatik Euskaraldira eraman nahi dute

[BERRIA] Korrikaren antolatzaileek lekukoa pasatu diete Euskaraldikoei. Horixe irudikatu zuten atzo goizean Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean, eta, halaber, batean erakutsitako indarra bestean isla dadin eskatu dute. Azaroaren 18tik abenduaren 2ra egingo dute aurtengo ekitaldia.

## Euskara Hizkuntza Teknologietan integratzea helburu duen GAITU- Hizkuntza Teknologien ekintza plana 2021-2024 aurkeztu du Eusko Jaurlaritzak

[Eusko Jaurlaritza] Gobernu Kontseiluak aste honetan onartu du "GAITU-Hizkuntza Teknologien ekintza plana 2021-2024" eta Euskararen Aholku Batzordeak ere jaso du bere berri. Bingen Zupiriak gaurko aurkezpenean adierazi duenez helburua argia da: “ingurune digitalean euskararen presentzia eta euskarazko tresnen eta edukien sorkuntza sustatzea”.

## Committee of Experts publishes a statement on the promotion of regional or minority languages through artificial intelligence

[Council of Europe] The Committee of Experts of the European Charter for Regional or Minority Languages adopted a statement on the promotion of regional or minority languages through artificial intelligence (AI). Therefore, AI applications may facilitate the daily use of regional or minority languages and support authorities in promoting them in accordance with the Charter.

## Aplikazio digital bat, Afrikako hizkuntzak hedatzeko

[NAIZ] Zimbabweko Chido Dzinotyiweik eta Dorcas Kwarambak 'Vambo Academy' aplikazio digitala jarri dute martxan. Aplikazioaren bidez, erabiltzaileek Afrikako hizkuntza desberdinak ikasi ditzakete kontinenteko ondare linguistikoa babestuz.

## Jersey language policy for government schools and colleges launched

[BBC] The first language policy for all government schools and colleges in Jersey has launched. It is part of a major reform of Jersey's education system, the States said.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

**Babeslea:**

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

**Bazkide partaidea:**

emun
Euskara eta berrikuntza soziala